

GURE PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena: *Chupito Chups*

Gure proiektua hurrengoa da, *Chupito Chups* deituriko gozoki alkoholodunak ekoiztea eta saltzea. Izenak azaltzen duen bezala, gure produktua makildun gozoki bat izango da eta bere barruan "chupito" bat egongo da, hau da, alkohol mota bat. Gozokiak zapore ezberdinekoak izango dira eta alkohola ere zaporearen arabera ezberdina izango da. Gure produktuaren erabilera alkohola kontsumitzeko era berri bat izatea da, merkeagoa eta seguruagoa (alkohol kantitatea txikiagoa izango delako nahiko denbora eman behar delako *Chupito Chups* bakoitza kontsumitzen).

Gure produktua alkohola kontsumitzen duten edozein pertsonari interesa dakioke eta bere berezitasuna beste produktu alkoholodunen aurrean formatoa da, ez direlako horrelako gozoki alkoholodunak existitzen eta ondorioz publikoarentzat oso erakargarria izango da zerbait berria probatzea. Pertsona hauek gure produktua erosiko dute alkohola beste modu ezberdin batean kontsumitzeko (modu gozoago batean!).